

*** Ikasleek egindako PROPOSAMENAK (08-09 ikasturtea) eta Arrasateko Udalak hartutako neurriak (erabakiak eta egindako lanak)**

1.- "Publizitaterik ez" pegatinak udalak herritarren artean banatu hauek euren atari edo/eta postontzietan jartzeko aurkera izateko.

Garapen Estrategiko Departamentuari pasatu zaio zuen proposamena eta aztertuko da ea ekintza hori beste kanpaina zabal baten barruan sar daitekeen.

Bestetik esatea gaur egun atari askotan kanpokaldean jartzen ari direla postontzi orokor batzuk (auzoko guztiontzako) eta propaganda gutxiago uzten da.

2.- Udalarekin erlazioa duten enpresek behintzat paper birziklatua erabili beharko zuten.

Udalan Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea (EKPB) lantzen ari gara azken urte hauetan, eta honen harira kanpoko enpresak kontratatzeke baldintzen artean, paper birziklatua erabiltzeko eskaera egin zaie, bana jakina, hau bakarrik udalan bertan aurkeztuko duten dokumentuei lotuta. Enpresa bakoitzak bere barne erabilerarako zein paper erosten duten ezin dugu kontrolatu eta gutxiago behartu.

3.- Hemengo produktuei buruzko informazioa zabaltzea herritarrek dituzten erosteko ohiturak aldatzen joateko. Udalak herriko produktuei lehentasuna eman behar die eta laguntza eman horien publizitatea egiteko..

Udalak Baserriko Produktuen Azoka 2004.urtetik antolatzen du eta azken bi urtetan maiztasun handiagoaz(hilean behin); 2010erako 9 azoka berezi antolatuko dira eta horien publizitatea karteletan eta prentsan egiten da.

4.- Kontsumo ikastaroak antolatu herritarrek kontzientziatzeko.

Kontsumo ikastaroak Udalak zuzenean ez ditu antolatu herritarrentzako, baina Ibai arte dendari elkartarekin elkarlanean "Merkataritza berdearen astea" antolatu du eta bertan, beste ekintza batzuen artean ikastaro bat egin zen merkatariei zuzenduta kontsumo iraunkorra eta iraunkortasuna orokorrean lantzeko.

Bestetik Arrasateko Udalaren Ekintza Planeko lerro estrategiko bat (LE 10) "Udalerrian nahiz udal administrazioan erosketa eta kontsumo iraunkorra bultzatea" da eta lerro horren barruan ekintza bat: "Bertako eta kalitatezko produktuen kontsumoa bultzatzea".

5.- Udal honek herriko jaietako programan ez du publizitaterik sartzen eta hori oso egoki ikusten dugu, ohitura hau mantentzen animatu nahi dugu.

Udal honek, behintzat aurrean eta hurrengo urtean egongo den gobernuak konpromisua hartzen du ohitura honekin jarraitzeko.

6.- Udalak publizitatea jartzeko taula edo panel gehiago jarri behar ditu..

Momento honetan adierazpen libreko hiru gune daude. Bere egunean azterketa bat egin zen Obra, Zerbitzu eta Mantenimendu Departamentuan, ikusteko ze gune ziren egokiak publizitatea eta kartelak jartzeko.

7.- Udalak pentsatu beharko zuen ordenantza bat lantzeko eta publizitateak arau gutxi batzuk errespetatu ditzala.

Proposamen hau aurrera eramateko zailtasunak daude publizitatearen edukinetan arautzeko Udalak kompetentzia gutxi daukalako. Hala ere aztertuko dugu zuen proposamena ea noraino hel daitekeen ikusiko dugu.